

Kutxa ekogunea

etorkizuneko ekoparkea

• KUTXA Ekogunea

Zer da KUTXA Ekogunea?

KUTXA Ekogunea KUTXAko Gizarte Ekintzak ingurumen eta jasangarritasunaren alde egin duen apustu estrategikoa da, proiektu ireki eta parte hartzailea. Laburki esanda, KUTXA Ekoguneak gizarteak kontzientziaziotik ekintzeta pasatzeko erremintak eskaintzea du helburu, egunez egun kultura berde bat eraikiz.

Proiektu jasangarriak Gipuzkoan zehar.

KUTXA Ekogunea egitasmoak Gipuzkoan zehar martxan ditu hainbat proiektu, horietako batzuk Hernanin. Izan ere, Hernani izan da *Ontziratu zaitez!* izeneko kanpainaren aitzindari-tako bat. *Tupper*-raren kanpaina 2011 urtean Hernaniko arrandegietan abian jarri zenetik, 3.000 erabiltzailek jarraitzen dute *tupper berdea* erabiltzen erosketak egiteko. Keinu txiki honi esker, hernaniarrek arraina biltzeko paper eta plastiko pila aurreztu dute ingurumenarekiko kaltea murriztuz.





Bestalde, **olioa birziklatzeko sistema integrala** ezartzen lehenetariko bat izan da Hernaniko herria. Olio birziklatzeko sistema garbi, eroso eta jasangarria da honakoa: etxean sortutako olio hondakinak (frijitu ondorengoak, konserba potetakoak,...) arraskatik bota ordez, pote honetan bilduko dira.

Betetakoan, Hernaniko hainbat puntutan kokatutako makinan sartu eta trukean beste bat jasoko duzu, hutsa eta garbia. Erabilitako oliotik biodiesela, autoentzako erregaia, sortuko da.

Guztira, 10 olio makina kokatu ziren maiatzean udalerriko auzo ezberdinetan eta urtean 20.000 litro olio inguru jasotzea aurreikusita dago.

Bestalde, Hernaniko haur-eskolak jangeletan menu ekologikoak ezartzearen aldeko apustua egin du *Ekolapiko* ekimenean parte hartuz. *Ekolapiko* ikastetxeetako jantokietan elikadura ekologikoa eta orekatua txertatzeko proiektua da, bertako eta garaiko produktu ekologikoen erabilera oinarritua.

Maiatzaren 21ean abian jarri zen proiektu honi esker, Hernaniko 90 haurrek osasuntsu eta kalitatearekin jateaz gain, elikadurak, landa garapenak eta ingurumenak gure egunerokotasunean duen garrantziaz ohartuko dira.

Irailaren 1ean Hernanin izan zen *EkoBira* azoka jasangarria. Egun osoan zehar Plaza Berrira gerturatu ziren 2.700 herritarrek beste kontsumo era bat posible dela egiaztatzeke aukera izan zuten. Izan ere, *EkoBira* ikusgai jarri du bizimodu jasangarria egiteko aukerak badaudela bai elikadura alorrean eta baita energia-kontsumoan eta aisialdian ere.



Parkea

KUTXA Ekoguneko nukleo fisikoa 2 urteren buruan gauzatuko da: Europako erreferente izango den jasangarritasunaren parkea, hain zuzen ere. Donostia eta Hernani artean kokatzen den Zabalegiko lursailetan eraikiko da *Ekogune parkea* eta hainbat gune tematikoetan banatuko da: energia berriztagarrien plataforma, euskal abereen etxaldea, hizkuntzaren eta kulturaren zentroa non hizkuntza-ekologiaren inguruko erakusketa izango da ikusgai, ura iragazteko sistema naturalak, autokontsumorako baratza, jatetxe ekologikoa, aterpetxea, ekodenda,... eta batez ere naturaz eta ingurumenaz gozatzeko topagunea izango da.

Ekoguneak urtean 130.000 bisita izango dituela aurreikusten da, horietako herena ikastetxe eta hezkuntza zentroak izanik.

Parkea leku irekia izango da eta bertan familiariek, ikastetxeek eta enpresa publikoak zein pribatuek *ekoparkeak* eskura jarriko dituen ekimen eta zerbitzuez baliatzeko aukera izango dute: tailerrak, azokak, ibilbide gidatuak, aholkularitza zerbitzuak,...

KUTXA Ekoguneak guztion artean kontsumo eta aisialdi ohitura aldaketa aktiboa lortzea du helburu, kultura eta balore jasangarriagoak sustatuz.

Informazio gehiago: www.ekogunea.net

